

Arantxa Urretabizkaia Idazlea

«Idaztean ez dut zaharrengan pentsatu, jakinmina duenarengan baizik»

'Zahartzaroaren maparen bila' saiakera argitaratu du, non gaiaren inguruko kontraesanak, topikoak, arakatu dituen



AIORA SAMPEDRO

Arantxa Urretabizkaia 'Zahartzaroaren maparen bila' saiakera argitaratu du. Liburuan dioenez, zahartzaroa gizartean eta literaturan 'terra incognita' bat da oraino; eta haren inguruan hausnartuz, berrikuspen kolektibo bat egiteko premia dago. Horretarako, zahartzaroari loturiko gaien inguruko kontraesanak, topikoak, arakatu ditu: pentsioak, zahartzar aktiboa, bakardadea, zaintza... Horretarako bere iritzian eta kideen testuetan oinarrituz. – 1968ko udaberrietik aurrera, diozu, gaitzetsita ageri dela zahartzaroa. Iruditzen zaizu 2020ko hamarkada hau zahartzaroaren ahalduntze fase bat? – Baliteke. Egia esan, nik mende honen hasieratik daramat kontu honi bueltak ematen eta geroz eta

Kai Nakai
Musikaria

«Azokan hainbeste tentazio daudenez, etxera beti eramaten dut disko edo libururen bat. Gainera, nire proiektua bertan jaio zen eta gehien gustatzen zaidana jendearen maitasun osoa jasotzen duzula da: hitz politikak, besarkadak...»

gehiago ikusten dut han eta hemen, elkarrizketetan edo erreportajeetan, zahartzaroaren gaia tratatzen dela. Lehen ez. Ez dut liburuan aipatzen, baina duela gutxi Madrildik deitu zidaten eta eskatu zidaten eginkizun batean parte hartzeko. Ekimena kosmetika marka ezagunenetako batek ordaintzen zuen. Esan zidaten firma hori, frantsesa, jabetu zela hor diru bat dagoela. Beraz, badago mugimendu bat, ez gizarte zibilarena bakarrik, baizik eta enpresena ere bai. Kontzeptu bat erabiltzen zuten izendatzeko: 'silver economy'.

– Berrikuntzen bide honetatik, jorratzen dituzu gai batzuk garai guztietan zahartzaroarekin lotuta egon direnak. Eta aldi berean, beste gai batzuk soilik gaur egungoak direnak. Adibidez, zahartzaroa, bere horretan, arbuizatzea. Zuk baduzu sentsazioa badaudela gaur egun gai batzuk berriki zahartzaroari lotu zaizkionak?

– Etengabe denok gazte izan behar izate hori bai, dudarik gabe. Zahartzaro tradizionalak bazituen bere abantailak. Zahar tradizionala ez zen zeukan adinaz lotsatzen eta oso argi esaten zizun zenbat urte zituen. Izan ere, bazekiten edonor ez zela heltzen adin horretara eta meritu gisa hartzen zuten. Orain, berriz, zahartzar ezkutatu egin behar da. Bestetik, itxura gaztetzearen kontua ere berria da. Gogoan dut gazetetan Estatu Batuetara joan nintzela hilabete batzuetan eta itzuleran pentsatu nuela amarentzat opari bat ekarri behar nuela Almazan handi batzuetan sartu eta pertsona helduen atalera joan nintzen. Han dena zen arrosa kolorekoa, baina gure amak kolore horiek ez zituen janzten.

– Ama aipatu duzu. Asko agertzen da liburuan. Amaren aipu guztiak intimitatetik egindakoak dira.

– Iruditu zait hori txertatzen bannuen antzeman zitekeela nola joan den aldatzen zahartzaroari



Arantxa Urretabizkaia, elkarrizketa batean. IÑIGO ROYO

buruz nik neukan idea. Aita ez dut sartzen duela ia 60 urte joan zelako eta amari begira hasi nintzen kontu honetaz hausnartzen; ikusita amak eta bere lagunek zer egiten zuten, zer esaten zuten: «hau ez nuke inolaz egingo, hau ordea, bai». Hala ere, hasiera batean iruditu zitzaidan gauza autobiografikoak jartzen banituen saiakerari akademikasuna kentzen ziola; eta hori arrisku bat zen lana serio hartzeko. Argialetxeak, aldiz, esan zidan hori zela bere abantaila, ez dela akademikoa. Horrek beldur hori ezabatu zidan.

– Liburuan aipatzen dituzun egi-leak bai gizonak, bai emakumezkoak dira. Baina asko daude emakumezkoak. Kasualitatea da gure literaturan zahartzaroari emakumeek begiratzea?

– Agian emakumeok, eta batez ere feminismoan luzaroan jardun dugunok, gure bizitza aztertzeko ohitura dugu. Izan ere, errepasatu behar izan dugu zer egiten genuen, zer ikasi genuen, zer desikasi behar dugun. Eta hori modu kolektibo batean egin da. Gizonek ez dute tradizio hori. Gizentasunari buruz agian bakarka bai, baina ez dute taldean hori egiteko ohiturarik; salbuespenak salbu.

– Nork ikusten duzun beharrezkoago liburu hau irakurtzea: gazteenek, zahartzaroan sarzera doazenek edo nork gustatuko litzaizuke irakurtzea?

– Liburua kaleratu denetik behin baino gehiagotan norentzat dagoen idatzia galdetu didate. Batetik, jendeak pentsatu du zaharrentzat edo zahartzaroan dagoe-

narentzat dagoela idatzita. Hori ez da egia. Haserretu egiten nau. Badirudi beti irakurtzen dugula geure buruaren ispilu baten bila, gutaz hitz egin dezaten. Baina askotan, nik beste batzuen bizitza nolako den ikusteko, besteen bizitzetan sartzeko, irakurtzen dut. Idaztean ez dut modu berezian zaharrengan pentsatu, jakinmina duen edonorengan baizik. Eta bestalde, ez nik ez beste inork ez du zahartzaroaren mapa bakarka osatuko: belau-naldi oso batek osatuko dugu. Ni ausartu naiz soilik nire ekarpena egitera, baina behar dut besteen ekarpena. Uste dut oraindik asko dudala ikasteko zahartzaroaz. Nik liburu bat idatzi dut eta orain espero dut erantzunekin eta oihartzunarekin apur bat gehiago ikastea.